Gonzalez de Txabarri advirtió que el desafío es enorme y que “solo podremos hacerle frente y dar un giro a esas políticas si nos centramos en trabajar los instrumentos de poder que tenemos los sindicatos; si nos centramos en sindicalizar, organizar y en movilizar, a todos los niveles: de empresa, sector, local, nacional, internacional”. “Debemos reforzarnos y ser independientes –añadió–, para concluir que “hay alternativas; es posible otra forma de construir Europa”.

**Debate.** En el Congreso de la CES se debatió una ponencia general y se realizaron cinco mesas redondas, en las que se analizaron temas como crisis y alternativas; la UE, más desigual como consecuencia de la crisis; mercado único: respeto a los derechos laborales y servicios públicos; empleo sostenible-precariedad y los vecinos del Sur. ELA presentó enmiendas en diferentes capítulos. Las principales, referidas a la gobernanza económica europea (el Pacto sobre el Euro Plus) y al Diálogo Social.

## EUROPAKO SINDIKATUEN KONFEDERAZIOAREN (ESK) ILDO ESTRATEGIKOAK

Atenasko Adierazpenak jakitera ematen du, besteak beste, soldatak ez direla ekonomiaren etsai, bultzagile baizik; negoziazio kolektiboan diharduten eragile sozialen autonomia errespetatu beharrekoa dela; eta Euro Plus Itunaren arriskua hor daukagula.

ESKk iragarri du langileentzako aro berri baten alde egingo duela —gobernuen zorroztasun-politiketatik beste muturrera joz—. Aro berri horretako Europako ekonomia-politika, merkatuen zerbitzura egon beharrean, herritarren zerbitzura egon behar da; gazteen langabeziaren aurkako plan koordinatua taxutuko da; eta Europako langile guztien lan-baldintzak hobetuko dira.

ESKk finantza-merkatuak zorrozki araupetzeko eskatuko du; era berean, itun eta zuzentarauetan, askatasun ekonomikoak baino, funtsezko eskubide sozialak gehiago begiratzeko ere eskatuko du.

# Iberdrolaren argi-itzalak

ELAK IBERDROLAREN LAN- ETA GIZARTE-POLITIKA SALATZEN DU. GOBERNU GUZTIEK MAINATURIKO “EUSKAL” MULTINAZIONAL HORI DIRUZ OKITZEN ARI DA, ERABILTZAILEEN, ENPLEGUAREN ETA INGURUNEAREN KONTURA

› N.I./B.F.




**ELAren Azterketa Bulegoko kideek txosten jakingarria prestatu dute, Iberdrolaren barrenalde ekonomiko eta laboralei buruz.** Horren arabera, euskal multinazionalaren benetako izaera ez dator bat botere politikoak eta hedabideek aurkezten diguten enpresa eredugarriarekin, ez lan-arloan, ez gizartekoan, ezta ingurune-esparruan ere.

**-Ezagutu ditzagun, bada, Iberdrolaren barrenalde horiek. Oro har, zein da haren egoera ekonomikoa?**

-Iberdrolak etekin itzelak ditu, eta goraka doaz etengabe. Estatu Espainolean bakarrik izan duen jarduera kontuan harturik, 2010eko mozkinak, zergapetu baino lehen, 1.191,2 milioi eurokoak izan dira, 2009koak baino %17,2 handiagoak. Gainera, maiatzaren hasieran iragarri du irabazi garbia %10 hazi dela 2011ko lehen hiru hilabeteetan. ELAren kritika hurrengo honetan datza: irabaziak enpleguaren, erabiltzaileen eta ingurunearen kontura egiten dira.

## Iberdrola es la niña mimada de las instituciones a pesar de que su política laboral reside en machacar a sus trabajadores/as directos y abandonar a su suerte a los indirectos

**-Ikus dezagun gaia puntuz puntu. Baina zein eragozpen jartzen diogu *enpresa eredugarri* horretako enplegu- kalitateari?**

-Iberdrola *aitzindari* izan da enplegua araugabetzen, eta erabateko malgutasuna ezartzen. Pare bat adibide besterik ez: Enpresa horrek, 2010ean langile bakoitzeko 122.000 euroko etekinak lortu arren, 50 orduz luzatu zuen lanaldia aurreko hitzarmenean.

Aurtengo hitzarmenean soldaten neurritasuna aipatzen da; eta onenean ere, soldatak %0,5 igoko dira 2010eko inflazioaren gainetik. Labur esanda, emaitzak ikusgarriak badira ere, langileek ez dute behar besteko onurarik ikusten.

**-Eta zuzeneko langileek onura handirik sumatzen ez badute, are gutxiago zeharkakoek.**

-Zeren Iberdrolak bere jardueraren funtsezko zerbitzuak azpikontrataturik dauzka; zerbitzu horietan diharduten langileen kontura irabaziak ugaltzearren.

Zerbitzu horietako bat telefono-arretakoa da. Emakume langile horiei Estatu-mailako hitzarmen bat aplikatzen zaie, erabat prekarioa, mila euro eskaseko soldatak dituena. Askotan, gainera, kontratuak lanaldi partzialekoak dira.

Zerbitzu hori azken 10 urteotan hainbat azpikontrataren eskuetatik pasa da: Resulta, Customer Works eta orain Konekta BTO. Langileak borrokan dabiltza, lanpostuak gordetzeko, antzinatasuna onartzeko eta hitzarmena babesteko. Eta Iberdrolak, bitartean, ihes egiten dio gatazkari.

**-Elkarrizketa honen hasieran emandako irabazi-datuek goitik behera gezurtatzen duten elektrizitate-enpresen argudioa, tarifa-igoerak zuritzekoa.**

-Hala da. 2006 eta 2011 urte bitartean elektrizitate-tarifak batez bestez %47,6 igotzea onetsi du Gobernuak, KPI bitarte horretan igo den portzentajearen (%15,8) hiru halako gehiago.

Argiaren igoera latz hori beste zama bat da jendearentzat; eta, larriagoa dena, igoeraren benetako helburua elektrizitate-enpresen mozkinak ugaltzea da.

Gainerako elektrizitate-enpresen antzera, Iberdrola arranguran izaten da elektrizitatearen tarifa benetako kostua berdintzera ere iristen ez delakoan. Baina emaitza ekonomikoak ikusita, hori ez da egia, inondik inora.

**-Jende askok ezagutzen ez duen beste datu bat da Iberdrola liderra dela Estatu Espainolean energia nuklearrean, bere burua berdetzat harrotasunez erakusten badu ere.**

-Energia nuklearra negozio borobila da elektrizitate-enpresentzat. Baina ondorio larriak ekar ditzake, Japoniaren kasuan ikusi dugun bezala. Energia-mota hori arriskutsua eta zikina da (sortzen dituen hondakin erradioaktiboak arriskutsu izango dira milaka urtetan), garestia (kostua gizarteari egozten zaio), ez da beharrezkoa (bestelako aukerak badaude), klima-aldaketa bultzatzen du, eta kanporanzko menpekotasun energetikoa sortzen du.

Esanak esan, Iberdrolak partaidetza du Estatuko ia planta nuklear guztietan. Eta hurbilen daukagun zentralaren jabea da. Garoña zentral zaharkitua da, egoera txarrean dago, egitura-arazoak ditu, eta beraz arrisku larriak sor ditzake. Hala ere, Iberdrolak bere eraginaz baliatu da Garoñaren bizitza baliagarria 40 urtetik gora luzatzeko.

**-Iberdrolaz esaten ari garen guztia posible izan bada, botere politikotik jasotzen duen aldeko trataeragatik eta hedabideen isiltasunagatik izan da.**

-Botere politikoak enpresa handiekin duen elkar aditzearen adibiderik argienetarikoa Iberdrolaren kasua da. Iberdrolako presidentea, Ignacio Sanchez Galan, Zapaterori aholku ematen dioten 40 enpresari handietako bat da; Patxi Lopezen Aholkularitza Kontseiluko kidea; eta Bizkaiko ahaldun nagusi Jose Luis Bilbaok antolatzen dituen aurkezpen-ekitaldietara agertu ohi den horietakoa. Bestalde, komunikabide nagusiak Iberdrolari interesatzen zaizkion berrien emaile hutsak dira. Iberdrolaren kasua argi dago: agintzen eta, areago, gobernatzen duen enpresa horietako bat da.

ELA 100 URTE euskal sindikatua

# "Lortu dugu!"

## IA HIRU URTETAKO BORROKA NEKAEZINAREN OSTEAN, EAEKO ESKOLA PUBLIKOETAKO JANGELETAKO LANGILEEK URRATS HANDIA EMAN DUTE EUREN LAN BALDINTZAK DUINTZEKO EGITASMOAN



En la imagen, delegadas de ELA de comedores escolares

› GORKA QUEVEDO

**Maiatzak 26, osteguna. Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetako jangeletako enpresetako langileak laugarren greba astean murgilduta daude,** hitzarmenaren alde. Eguerdia da, eta, egunero bezala, langileek asanblada dute. Baina egun honetako bilera berezia da. Guztien ahoetan irribarrea da nagusi, barreak eta algarak ere entzuten dira. Ez da harritzekoa. Urte luzetako borrokaren osten –1.060 egun eta 35 greba egun–, bezperan euren lan-baldintzak duintzen lagunduko duen akordio bikaina lortu zuten sektoreko patronalarekin. Asanbladan, langileek patronalarekin hitzartutakoa adostu zuten, aho batez.

Gatazka honetan, beste askotan bezala, ELAk hamaika aldiz erabili du 'borrokatzeak merezi du' leloa. Lortutako akordio bikainak agerian uzten du hori horrela dela. ELAk sektorean duen arduradun Noemi Etxebarriak gatazka honetan protagonista nagusiak izan diren horiek zoriondu nahi ditu lehenik: emakume langileak. "Gurea, emakumeak erabateko gehiengoa diren sektore gehienak bezala, honako ezaugarri hauek ditu: prekarietatea, lan baldintza kaskarrak, diskriminazioa... Horregatik, antolatu eta mobilizatu beste biderik ez digute utzi".

Eskola publikoetako jangeletako langileek aspaldi hasi zuten euren lan-baldintzak duintzearen aldeko borroka. Horretarako, euren funtzio eta lan bera egiten duten Eusko Jaurlaritzako langileekiko ekiparazioa exijitzen zuten. Bide luze eta neketsu honetan, bi oztopo nagusi gainditu behar izan dituzte: patronala eta Eusko Jaurlaritza.

"Patronalak hasiera hasieratik oso jarrera itxia izan du. Ez zaie inporta izan ez sektorea ez eta gure lan-baldintzak, soilik euren anbizioa eta kosta ala kosta ahalik eta diru gehien irabaztea. Helburu hori lortu asmoz berdin zitzaien aurrean zutena zapaltzea. Adibide oso adierazgarria jarriko dut. 2010eko azaroaren 30ean egin genuen bileran eskaintza lotsagarri bat egin ziguten. Ezezko biribila eman genion, gure aldarrikapen bakar bat ere ez ez zuelako jasotzen".

"Akordioa lortu arteko mahai negoziatzailearen bilerak, eta dezente izan ziren, ez zuten bost minutu baina gehiago iraun. Ez zutela ezer berririk eskaintzeko esaten ziguten, eta hor bukatzen zen guztia. Honek argi eta garbi erakusten du langileok, gure lana, borroka eta mobilizazioei esker, gai izan garela patronala mugiarazteko. Ez digute ezer oparitu. Lortu dugun guztia lan sindikalaren eta aurrera eraman dugun borroka dinamikaren ondorioz izan da".

Eusko Jaurlaritzaren jarrera era gogor salatzen du Noemi Etxebarriak. "Uneoro patronalaren interesen alde egin du. Lotsagarria da ikustea bere burua sozialistatzat definitzen duen gobernu bat gutxi batzuen interes pribatu diru-zaleen alde egitea, gure kolektiboa osatzen dugun 4.500 emakumeen bizkarretik".

**Akordioa oso ona da ELAko arduradun honentzat.** "2014. urtera arteko iraupena izango du. Urte horretan Eusko Jaurlaritzaren langileekiko soldaten ekiparazioa %97,5ekoa izango da. Gainera, lanaldia edo formazioa bezalako arlo garrantzitsuetan ere lorpen handiak egin ditugu. Hori bai, berriz ere aipatuko dut, akordio bikain hau milaka eta milaka emakumeren indarra eta kemenarengatik izan da".

Hurrengo hitzarmena, ekiparazioarena. Lortutako akordioa oso ona izan arren, ez da ekiparazio %100ean lortzen. Horregatik, garaipen sindikala handia izanagatik, borroka oraindik ez da amaitu. "Oso basikoa den gauza bat aldarrikatzen dugu: gure lan baldintzak funtzio berdinak egiten duten eta zuzenean Hezkuntza Sailetik dependitzen duten langileekin ekiparatzea. Eta, lortu arte ez dugu etsiko".

Data ere jartzen du Etxebarriak. "Gure helburutik oso gertu gaude. Soldatetan, esaterako, ekiparazio maila %97,5ekoa izatea lortu dugu. Zalantzarik gabe, hurrengo hitzarmena ekiparazioarena izan behar du. Orain lortu dugun bezala etorkizunean ere lortuko dugu".

## DEL VOLUNTARIADO A LA DIGNIFICACIÓN



›NOEMI ETXEBARRIA

**Para comprender la realidad de nuestro sector** tenemos que remontarnos a finales de los 90. Nuestra labor empieza como una labor de voluntariado, madres que acudíamos a los comedores escolares para dar de comer a los niños y niñas y a cuidarlos en los patios de los colegios. A falta de una regulación específica, la gran mayoría prestábamos este servicio sin contrato. Eran una excepción las que tenían la suerte de tener un contrato de trabajo aunque, eso sí, en condiciones muy precarias. Poco a poco, gracias a la lucha y al compromiso militante de nuestra gente, hemos conseguido dignificar nuestras condiciones de trabajo. Ahora, gracias a la lucha sindical de muchas personas, en su inmensa mayoría mujeres, tenemos un convenio que regula y dignifica nuestras condiciones laborales. *Guztion artean, lortu dugu! Mila esker!*




# Escándalo social

## LA PLANTILLA DE THEIS IBÉRICA, DE BASAURI, DENUNCIA QUE EL OBJETIVO DEL CIERRE PATRONAL ES PEGAR UN PELOTAZO MERCANTIL

› **GORKA QUEVEDO**

**Asier Veiga, Iñaki Atutxa, José Ignacio Llama, Eloy González e Hipólito Amado –representantes de ELA en Theis Ibérica–** se muestran categóricos cuando hablan de esta empresa, situada en Basauri y dedicada a la laminación en frío. Califican de vergüenza todo lo sucedido y acusan a la dirección de dejarla morir con el fin de pegar un pelotazo mercantil. "Hay que decirlo alto y claro: Theis Ibérica es una empresa que podría tener actividad sin ningún problema, tal y como ha quedado demostrado. Sin embargo, aquí estamos, en la calle y a la espera de que el juez dicte cómo quedará nuestra situación".

Los problemas de la plantilla de Theis Ibérica vienen de años atrás. En julio del 2009, la empresa matriz, situada en Alemania, decretó suspensión de pagos, alegando mala situación económica. Unos pocos meses después, en julio, la planta de Basauri también se declaró en suspensión de pagos.

"En ese momento nos hicieron una propuesta para echar a 33 personas. Evidentemente, no estábamos de acuerdo e iniciamos una serie de protestas y movilizaciones, varias jornadas de huelga inclusive. Al final, logramos negociar que esas bajas fueran voluntarias. La empresa siguió tirando hacia adelante e, incluso, en abril del 2010 hubo más gente que dejó la empresa por voluntad propia".

Los responsables de ELA en Theis denuncian que durante todo el proceso la gestión de la dirección ha sido lamentable. "En marzo del año pasado la dirección comenzó a buscar un comprador para la planta de Basauri, pero éste no llegó. De este modo llegamos a la finalización del concurso de acreedores, en noviembre del 2010, sin que se lograra encontrar una solución".

"Nos han hecho la vida imposible", lamentan los representantes de ELA. "Viendo la situación de la empresa y la ineptitud de la dirección, los trabajadores/as hicimos una propuesta a los jueces concursales para comprar la planta de Basauri. Creíamos que la empresa tenía futuro y estábamos dispuestos a liderar un nuevo proyecto" .

Sin embargo, las condiciones que les planteaban los administradores concursales eran imposibles de cumplir. "El verdadero problema es que cuando cumplíamos algo que nos pedían nos volvían a exigir otra cosa. Así todo el rato. Planteábamos lo que planteáramos la respuesta era siempre la misma: NO. Un detalle: los administradores concursales y los acreedores nos dijeron que aportábamos poco y que buscábamos un pelotazo vendiendo terrenos por un valor mucho mayor. No hay que ser muy listo para entender que el pelotazo lo quieren pegar ellos".

**Al no haber acuerdo con los jueces en el proceso concursal, Theis Ibérica ha entrado en fase de liquidación.** "Desde abril no hay actividad en la empresa. Ahora solo nos queda esperar la orden judicial que dicte cómo queda nuestra situación. En teoría, si no hay imprevistos, la orden llegará a últimos de junio".

**Han dejado morir a Theis Ibérica.** Asier, Iñaki, José Ignacio, Eloy e Hipólito aseguran estar indignados. No es para menos. "Ahora nos dicen que no hay dinero para nada. Nosotros ofrecimos tres millones de euros, nos hacíamos cargo de la hipoteca y de la indemnización, y el Fogasa de los trabajadores y trabajadoras que no querían participar en la SAL –Sociedad Anónima Laboral–. Los administradores concursales, sin embargo, nos dijeron que no era suficiente; ni aunque pusiéramos todo el dinero del mundo era suficiente...".

En definitiva, se sienten frustrados e indignados por un proceso que les ha dejado en la calle cuando la empresa podría ser viable y continuar abierta. "La penosa dirección que hemos padecido durante el proceso de suspensión de pagos ha sido la que ha provocado la situación en la que nos encontramos. La gestión ha sido muy mala, vergonzosa. Lo único que han pretendido es que Theis Ibérica muriera para poder pegar un pelotazo mercantil. Cuando expiren los contratos hay un plazo de cuatro meses en los que los bienes de la empresa, valorados en 6 millones de euros, están en venta. De ahí también quieren sacar tajada", rubrican no sin rabia.

## "ETA LEGEA ALDE DUTE!"

**Haserre mintzo dira ELAk Theis Iberikan dituen ordezkariak.** Suminduta daude, eta bizi duten bidegabekeria salatu nahi dute. Bideragarria zen enpresa batean lan egitetik kale gorrira pasa dira. Baina, zalantzarik gabe, 60 langile kalera bidali duten horiek legearen laguntza eta babesa izatea da gehien asaldatzen dituena.

"Konkurtso-legean sartu ginenetik, epaileak enpresaren interesen alde egin dute. Euren luzapen hutsa izan dira. Bizi izan dugun guztia ikusita, inpotentzia ikaragarria da, ezin dugu ezer egin. Beraiek dira legea, nahi dutena egiten dute, eta gu, bitartean, gure kontra erabakitzen duten hori onartzea nahi dute".

"Epaileek enpresa hiltzen utzi dute, jabeek diru barra-barra irabazi dezaten. Proiektua ez omen zen bideragarria. Guk, bideragarria izan zedin enpresa gure gain hartzeko ardura agertu genuen. Ezetz esan ziguten, eta kitto. Azkenean, enpresa itxirik, gu kalean eta epaiaren zain. Ez dute ezer egin 60 lagun kalean gelditu ez zitezen. Ordea, duela pare bat urte, bankuek laguntza eskatu eta gure dirutik milaka milioi euro eman zitzaizkienean, ez zen arazorik egon".

ELA 100 URTE euskal sindikatua

## INGURUGIROA
## MEDIO AMBIENTE

# ¿Quién gana quemando los residuos?

**NOTA: Vamos a analizar el negocio de la incineración de residuos de manera exhaustiva en dos artículos. Este primero trata de las plantas incineradoras de residuos, y el siguiente tratará de la quema de residuos en la industria cementera.**



› AINHARA PLAZAOLA

**Llevamos años escuchando que tenemos la necesidad de una incineradora de basuras.** Por un lado, la Diputación de Bizkaia construye Zabalgarbi, y hoy pretende su ampliación. Por otro, la Diputación de Gipuzkoa, haciendo caso omiso de la gran oposición suscitada y las alternativas planteadas impulsó el proyecto de la incineradora de Zubieta. Las últimas noticias vienen de Nafarroa, que acaba de aprobar un plan de gestión de residuos que contempla la construcción de una incineradora en vez de expandir la recogida selectiva por todo el territorio. Lo hace, incluso, desmontando la recogida selectiva de materia orgánica que ya se practicaba en la comarca de Montejurra.

Hay muchas mentiras detrás de la *necesidad* de quemar basura. Con la tecnología adecuada se puede llegar a reciclar el 100%, empezando con la recogida selectiva puerta a puerta. El principal argumento de los defensores de la incineradora contra la recogida puerta a puerta es la necesidad de vertederos. No dicen que la incineradora también los necesita para las escorias y cenizas que resultan de la quema de basuras.

Afirman que la energía resultante de la valorización (incineración) de residuos es energía renovable, ya que la Unión Europea denomina renovable la energía que se genera quemando residuos orgánicos aunque sea, incluso, más contaminante que quemar gas natural. En realidad, la energía renovable es la que se obtiene de fuentes naturales inagotables o capaces de regenerarse por medios naturales. Los residuos que se queman son una mezcla de diferentes materiales (plástico, vidrio, madera, papel, materia orgánica,...) que se pueden regenerar reciclándolos. Si los quemamos y los reducimos a ceniza ya no se pueden recuperar. Además, para poder quemar residuos húmedos y de poca energía calorífica se les añade gas natural, por lo que la energía obtenida, en gran medida, es derivada del gas.

Otra mentira extendida por los defensores de la incineración es que *es inocua*. No es cierto. Tiene un gran impacto en la salud y en el medioambiente. La quema de residuos genera contaminantes tóxicos que se acumulan en las cenizas y también se emiten a la atmósfera y que causan graves afecciones a la salud como malformaciones congénitas, malformaciones en el feto, trastornos en los sistemas inmunológico, hormonal y nervioso, daños neuronales e insuficiencias respiratorias y cardíacas, entre otras.

**Money is money.** ¿Por qué, entonces, la mayoría de administraciones de Euskal Herria siguen defendiendo la incineración? Porque hay un gran negocio; para el beneficio de unos pocos, los de siempre.

El negocio está montado de manera que hay más de una fuente de ingresos. El primer paso es adjudicar la construcción, puesta en marcha y mantenimiento de la infraestructura. Esto ocurre en todas las grandes obras públicas, que luego se subcontratan a grandes grupos empresariales formados por constructoras, consultoras, empresas de servicios,... Éstos se llevan todo el dinero público que se pone para este tipo de obras.

## Zaborrari gas naturala gehituz erretzean eta energia hau berriztagarri bezala saltzean negozio borobila da; baina legeak beraien alde dauden arren eta energia hau berriztagarri bezala onartzen duten arren, ez da horrela!

El segundo beneficio viene de la actividad de la planta incineradora. Primero, cobran por tonelada de residuos que las mancomunidades les llevan para quemar. Y después, viene la "valorización con recuperación energética", como ellos le llaman. En realidad, se trata de quemar basura añadiéndole gas natural y vender la electricidad producida como si fuese energía renovable, y aunque la ley les ampara en su negocio y la clasifica como renovable... ¡no lo es! El beneficio de generar energía renovable está en que a estas empresas se les subvenciona con dinero público y, además, la energía renovable a la hora de venderla tiene preferencia sobre la energía convencional derivada del petróleo, gas o carbón. Un negocio redondo.

Al lobby económico montado alrededor de esta actividad no le interesa que se recojan los residuos de manera selectiva ni que se recicle el máximo posible ya que no tendrían qué quemar y se les acabaría el negocio. Y las administraciones no defienden el interés general sino que están al servicio de los intereses económicos. Por eso no apuestan por las 3Rs: reducir, reutilizar y reciclar. Es posible aumentar la tasa de reciclaje recogiendo selectivamente los residuos y reciclando más fracciones. Por eso, desde ELA exigimos verdaderas políticas de reducción y reciclaje y abandonar definitivamente los proyectos de incineradora.

LAN OSASUNA
SALUD LABORAL

# Cuando la empresa es el peligro

LOS DELEGADOS DE PREVENCIÓN DE LA EMPRESA SANTANA, DE BOLUETA, DENUNCIAN LAS CONDICIONES INSALUBRES E INSEGURAS QUE SOPORTAN



› LEIRE HEREDIA

**Santana de Bolueta es una fábrica ubicada en Bilbao** que data del año 1841 y que cuenta con 39 trabajadores propios y unas 10 personas de diferentes subcontratas.

Se dedica a la fabricación de bolas de metal, que se exportan casi en su mayoría a África y una menor cantidad a Asia y Europa, donde son utilizadas en el sector minero para la separación de diferentes minerales como oro, cobre o diamantes, de la tierra extraída.

## Delegatu hauek ez dute etsiko Gallartara lekualdaketa lortu eta higiene arriskuen ebaluazio bat egin arte

Dada la antigüedad de las instalaciones, las condiciones de seguridad y salud distan mucho de ser adecuadas para los trabajadores, que diariamente corren riesgos importantes e inadmisibles al desempeñar sus tareas. Desde que la empresa adquiriera una nueva nave en Gallarta, a la que se tiene intención de trasladar toda la actividad por motivos referentes a urbanismo en el emplazamiento de Bolueta, no se ha realizado ningún trabajo de mantenimiento, reparación o mejora en el taller. La operación de traslado se lleva prometiendo desde hace 3 años y medio y todavía no se ha materializado.

Por hacernos una ligera idea de las condiciones insalubres e inseguras que soportan los trabajadores, podríamos comenzar por la estructura, tejado y suelo del edificio, que están en condiciones lamentables. Dando un pequeño paseo por la fábrica nos encontramos con agujeros por toda la empresa, que hacen difícil el andar; grietas y agujeros en paredes y columnas; suciedad por todas partes; zonas y puentes grúa obsoletos y sin mantenimiento alguno, que utiliza personal sin cualificación; cadenas y cables desgastados y rotos; máquinas con partes móviles sin ningún tipo de resguardo (prensas mecánicas, laminadoras, horno...), que emiten un ruido constante en la empresa, que supera, incluso, los 140 db A, o placas de Uralita (fibras de amianto) rotas y almacenadas en las esquinas, sin ningún control entre otras.

Las bolas incandescentes salen del horno a una temperatura de unos 900 grados centígrados y se desplazan por toda la fábrica por un sistema de canales que no dispone de ningún tipo de resguardo que evite el riesgo de quemaduras.

**Alta tasa de siniestralidad.** Tanto riesgo se traduce, como es lógico, en una alta tasa de siniestralidad. Entre los accidentes más comunes están los cortes, quemaduras, caídas o amputaciones, y prácticamente la totalidad de los trabajadores del taller han sufrido este año un accidente laboral con baja de más de un día.

## Tailerreko ia langile guztiek baja egun bat baino gehiago suposatu duen lan-istripu bat izan dute aurten

**La inspección.** Con ayuda del área de salud laboral de ELA, los delegados de prevención, al ver que la empresa no tomaba en consideración sus peticiones en materia preventiva, denunciaron esta alarmante situación ante la Inspección de Trabajo, y la Inspectora actuante, después de girar visita y horrorizarse de lo que observó, hizo requerimiento de trasladar a todo el personal a la nueva fábrica de Gallarta con fecha límite de junio por el alto riesgo de accidentabilidad existente, y sancionó a la empresa. Por fin, una buena noticia para los delegados de prevención.

Estamos en el mes de junio y la plantilla trabaja a doble turno por exigencias de producción.

Los delegados de prevención de Santana de Bolueta no van a parar de exigir y denunciar el cambio del personal a la fábrica de Gallarta, además de la realización de evaluaciones de riesgo higiénicas que determinen el riesgo a agentes químicos a los que están expuestos para así poder solicitar unos reconocimientos médicos específicos y adecuados. “Sabemos que el trabajo de un delegado de prevención es una carrera de obstáculos constante, donde se van ganando las etapas poco a poco y con mucho sufrimiento. No por eso cejaremos en nuestro empeño de luchar por nuestra salud y nuestra seguridad en el trabajo. Reivindiquemos condiciones dignas y seguras en el trabajo porque, a pesar de que la ley establezca que la seguridad y la salud en el trabajo es cosa del empresario, nadie va a mirar más por nosotros que nosotros mismos”.

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL

# Gero eta pobreagoak

ELAK EGINDAKO IKERKETA BATEK BERTAN BEHERA UZTEN DITU MURRIZKETAK ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN AURKAKO ERASOAK JUSTIFIKATZEKO GOBERNUEK ETA PATRONALAK ERABILTZEN DITUZTEN ARGUDIOAK



› IDOIA INTXAURBE

**ELAko Azterketa Bulegoko azken txostenak egiaztatzen duenez, aberastasunaren banaketaren bilakaerak enpresarien eta kapitalaren errentei dakarkie onura, lan-errenten kaltetan.** Gizarteko desorekak agerian uzten dituen txosten honek, enpresa handien diru-sarrera ikaragarriak diren bitartean, langileek, langabeek eta pentsiodunek batez besteko errenta baino diru-sarrera txikiagoak dituztela azaltzen du.

BPGd-arekiko aberastasun banaketari dagokionez, lan-errentetara doan aberastasun zatia txikiagotu egin da, enpresarien eta kapitalaren errenten partea gero eta handiagoa delarik.

EAEn, 1980tik 2009ra artean, lan-errentek 7,1 puntu galdu dituzte, BPGd-aren %57,1etik %50 izatera igaro dira-eta; enpresarien eta kapitalaren errentak, aitzitik, 5,6 puntu hazi dira, BPGd-ean dagokien zatia %36,1etik %41,7ra igaroz. Honek, 2009an 1980ko aberastasun-banaketari eutsi izan balitzaio, lan-errentak 4.592,5 milioi euro gehiago izango liratekeela, eta soldatako pertsona bakoitzak 5.979 euro gehiago izango lituzkeela urte horretan suposatzen du.

Nafarroan, soldatapekoen ordainsaria BPGd-aren %50,2 izan zen 2009an, 2000az gero (NEIren datuak hasten diren urtetik aurrera, alegia) 1,4 puntu jaitsi ondoren. Ustiapeneko Soberakin Gordina BPGd-aren %42,9 izan zen 2009an, 4 puntu igo ostean (%38,9tik %42,9ra). Lan-errentek BPGd-ean galdu dituzten 1,4 puntu horiek hauxe adierazten dute: 2009an 2000ko aberastasun-banaketa berdina egin balitz, soldatako langileen guztizkoak 254,7 milioi euro gehiago irabaziko zituela. Era horretan, soldatako langile bakoitzak 1.136,3 euro gutxiago poltsikoratu zituen, urte horretan.

## Los costes laborales de los trabajadores/as de Hegoalde están por debajo de la media europea, mientras la productividad está muy por encima

*Per capita* errenta edo biztanleko errenta lurralde batean dagoen aberastasuna bertako biztanle-kopuruarekin zatitzearen emaitza da. Hego Euskal Herrian, biztanleko errenta 31.334 eurokoa da. Hau da, berton sortutako aberastasun guztia berdintasunez banatuko balitz, pertsona bakoitzak (adin guztietakoak) 31.334 euro jasoko zituen.

## Estos datos contrastan con los ingresos "indecentes" de quienes dirigen muchas empresas

**Baina nabaria da errentaren banaketa ez dela batere orekatua.** Izan ere, 2008an, HEHko langileen batez besteko irabazia 24.020 eurokoa izan zen, *per capita* errentako 31.334 euroetatik oso urrun.

Zentzu honetan, eta batez besteko pentsioari dagokionez, 2011ko martxoan, zehazki, 974,12 eurokoa izan da Hego Euskal Herrian. Eta langabeziako prestazioaren batez besteko zenbatekoa (prestazioa kobratzen dutenena) 945 eurokoa.

Langileriak jasotzen dituen diru-sarrerak ikusi ondoren, eta hauek askotan hilabete amaierara heltzeko oztopo larriak dituztela agerian gelditu ondoren, enpresa handiek eta hauek zuzentzen dituztenen diru-sarrerak ikusiko ditugu, kasu askotan lotsagarritzat hartu daitezkeenak.

## La pensión y la prestación por desempleo media están por debajo de los 1.000 euros; cantidad con la que es difícil vivir

**Salario txikiak, produktibitate handia.** Enpresen irabaziei dagokienez, Espainiako Bankuak finantzen arlokoak ez diren Espainiako estatuko 744 enpresak (guztizkoaren %12,1ek) 2010eko urtealdian aurkeztutako emaitzen kontuak 2009ko ekitaldikoekin alderatzean ageri den bilakaera aztertu du. Txosten horren datuek erakusten dutenez, mozkinen eta lan-kostuen bilakaerak oso ezberdinak dira. Izan ere, enpresen emaitza arrunt garbia %6,5 hazi da, eta langile-gastuek %1eko gutxipena izan dute (batez besteko soldata-gehikuntza %0,8koa izan zen, eta enpleguak %1,8ko jausia izan zuen)

Ibex 35-eko enpresek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalera (CNMVra) igorritako datuek erakusten dutenaren arabera, enpresa horiek 49.881 milioi euroko etekina izan dute 2010ean; hau da, 2009an baino %24,5 gehiago lortu dute, enpresa handiek gainerakoek baino mozkin handiagoak izan dituztelarik.

Enpresetako zuzendarien diru-sarrerei erreparatzen badiegu, IBEX-35ean kotizatzen duten enpresetako administrazio-kontseiluak 2,3 milioi euroko batez besteko ordainsaria poltsikoratu zuten 2010ean administrazio-kontseiluko. Alegia, 238 milioi eurotik gora banatu zituzten euren artean. Krisiaren aitzakiaz langileentzat etengabe murrizketak galdatzen dituzten berberen ordainsariok sumina pizteko modukoak dira.

Enpresa horietako kontseilukideen batez besteko ordainsaria 510.000 eurotakoa izan da zeregin horren truke.

**Banaketa.** Hau guztia dela-eta, inoiz baino beharrezkoagoa da aberastasunaren banaketa eztabaidaren erdigunean ipintzea. Aberastasuna ekonomiaren hazkunde-garaietan zein krisialdietan banatzen da. Baina banaketa hori gero eta desorekatuagoa da. 2010ean enpresarien mozkinak hazi eta soldatak urritu izana esandako horren erakusgarri argia da.

Beste alde batetik, eta lan-kostuei eta produktibitateari dagokionez, zalantza barik baiezta daiteke Hego Euskal Herrian, lan-kostuak Europako batez bestekoa baino urriagoak diren arren, produktibitatea nabarmen handiagoa dela.

## La evolución del reparto de la riqueza está beneficiando a las rentas empresariales y del capital en perjuicio de las rentas de trabajo

EAEn, lan-kostuak Europako Batasuneko 27 estatuetako batez bestekoa baino %11,4 txikiagoak dira, eta Nafarroakoak batez besteko hori baino %15,7 txikiagoak.

Produktibitateak erkatzeko behar diren datuak EAEren kasuan baino ez daude, Eustatek eskainiak, hain zuzen. Datuon arabera, irizpide homogeneoak erabilita, EAEko produktibitatea 27 estatu-kideko Europar Batasuneko handienetakoa da. Zehazki, 27-EBko batez besteko produktibitatea 2009ko ekitaldian 100ekoa izan bada, EAEkoa 132,4an ageri da.

## SUELDOS MILLONARIOS PARA UNOS

El presidente de Repsol YPF, Antoni Brufau, recibió 7,11 millones de euros en 2010, mientras que Ignacio Sánchez Galán, presidente de Iberdrola, percibió 6,9 millones de euros.

Así mismo, en 2010, los dividendos que recibieron 9 de los mayores accionistas del Ibex-35 ascendieron a un total de 1.347,6 millones de euros. Destacan casos como el de Amancio Ortega (Inditex) que recibió por esta vía 591,4 millones de euros, o Emilio Botín (Santander), que percibió 49,5 millones.

## EL EURIBOR SIGUE CRECIENDO

Una parte muy importante de la población trabajadora está sometida a la obligación de pagar un crédito hipotecario. De confirmarse la subida del euribor que se ha iniciado en los últimos meses, el poder adquisitivo de los trabajadores y trabajadoras, en especial de quienes tienen menores ingresos, va a verse muy afectado.

Basta como ejemplo ver la situación de quienes tienen un préstamo de 180.000 euros a 30 años. Una subida de un punto del euribor supone un incremento de la cuota mensual de unos 100 euros.

## LAS PENSIONES DE LOS BANQUEROS

Los grandes banqueros, que acostumbran a exigir y aplaudir los recortes de las pensiones públicas, tienen cubiertas las espaldas con planes privados de pensiones. Las seis grandes entidades bancarias del estado español (las cinco del Ibex-35 más Banesto), tienen compromisos adquiridos en materia de pensiones con 17 personas (sus presidentes, consejeros delegados y vocales ejecutivos del consejo de administración) por valor de 389 millones de euros, es decir, a 22,9 millones de euros de media.



ELA 100 URTEZ euskal sindikatua

LEGEAREN BUELTAK
PAGINAS JURIDICAS

# LHK/CRL-k, legearen aurkaarituz, ELAren ordezkaritza eman zien CCOO eta UGTri



## El TSJ del País Vasco declara ilegal la actual composición del Consejo de Relaciones Laborales y anula el Decreto de nombramiento de sus miembros, para que el presidente del CRL realice una nueva propuesta en la que se respete la representatividad sindical

› HAIMAR KORTABARRIA

**Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenak,** 2011ko maiatzaren 20ko sententzian, legez kanpokotzat jo du Lehendakariaren 2009ko abenduaren 29ko Dekretu bidez burututako Lan Harremanen Kontseiluaren osatzea.

Euskadiko Lan Harremanen Kontseilua sindikatu eta enpresaburu konfederazioen arteko elkarrizketa eta topaketa gune izateko jaiotako erakunde publikoa dugu. Alde sindikala EAEko sindikatu nagusiek hautatutako zazpi ordezkarik osatzen dute, kide kopurua eta erabakietan izango den pisua hauteskunde sindikaletan lortutako emaitzen araberakoa delarik.

## La Sala estima que el Decreto del Lehendakari es ilegal por vulnerar los principios de proporcionalidad y de voto ponderado que inspiran la Ley y el Reglamento de funcionamiento del CRL

Jakina denez, 2006an ELAk LHKn parte hartzeari utzi zion, LHKk lan harremanen munduan jokatzen duen paper tamalgarria aldatu bitartean. Erabaki horren ondorioz, ELAk legez zegozkion kideak izendatzeari uko egin zion. Hori gertatu zen lehenengoz, 2007an, LHKn hiru eserleku hutsik geratu ziren eta organoak bere horretan funtzionatzen jarraitu zuen.

LHKren izendapenak berriro egitea tokatzen zenean, ordea, 2009an, LHKk oso bestelako erabakia hartu zuen. CCOO eta UGT sindikatuen eskariari eta oinarri juridiko gutxiko txosten bati jarraitu eta legez ELAri zegozkion hiru eserlekuak CCOO, UGT eta LAB sindikatuei eskaini zizkien. LABek berea ez zen eserlekuari uko egin zion, baina CCOO zein UGTk ez zioten emandako aukerari uko egin, bakoitzak zegokion baino kide bat gehiago izendatuz.

ELAk egindakoa gogor salatu eta, bere ordezkaritza usurpatzen ari zirela ulertuz, demanda jarri zuen izendapenak burutu zituen Lehendakariaren Dekretuaren aurka.

**Sententziak argi utzi du LHKren berritze prozesua legearen aurka egin dela** eta horren ondorioz, Dekretuan jasotzen diren sindikatuetako izendapenak baliogabetu egiten ditu. LHKko presidenteak izendapenerako proposamen berria egin beharko dio Lehendakariari baina proposamen horretan legea errespetatuz, hau da, ELAri dagozkion eserlekuak beste inori eman gabe.

Sententziak dioena zera da, Lehendakariaren Dekretua legearen aurkakoa dela LHKren legearen oinarrian dauden proportzionaltasun eta boto haztatu (*voto ponderado*, gazteleraz) printzipioak errespetatzen ez dituelako. Auzitegiaren arabera, legeak LHK EAEko ordezkaritza sindikalaren isla izatea nahi du eta Dekretuak horren aurka egiten du.

Epaia ez da irmoa eta EAEko administrazioak Auzitegi Gorenean kasazio errekurtsoa jartzeko aukera du. Hala ere, epaia oso ondo argudiatua dago eta lanak izango dituzte EAEko Auzitegi Gorenaren sententzia honi buelta ematen.

## LABUR

### CONVENIOS DE EFICACIA LIMITADA

La Delegación Territorial de Bizkaia del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales ha publicado el acuerdo extraestatutario para Oficinas y Despachos de Bizkaia (BOB de 14/02/2011 y corrección de errores de 22/02/2011) en la sección normativa del Boletín Oficial.

La publicación rompe con el criterio seguido hasta ahora por las distintas administraciones (desde 2001 no se publican en el BOPV), incluso la estatal, en el sentido de publicar únicamente los convenios que alcanzan eficacia general.

ELA entiende que los convenios de eficacia limitada, al tener carácter contractual y afectar únicamente a empresas y trabajadores que voluntariamente se adhieran al texto, no pueden ser publicitados en el apartado normativo de un Boletín Oficial.

La publicación coincide con el interés de CCOO y UGT que, pese a ser minoría en el sector, han solicitado expresamente dicha publicación.

## » CONSULTORIO JURÍDICO

# Subcontratación y sustitución de trabajadores/as en huelga: cambio de criterio del TSJ del País Vasco

**La sala de lo social del TSJ del País Vasco ha condenado a Osakidetza por vulneración del derecho de libertad sindical** de ELA y de huelga de los trabajadores/as de Albie (AS 2010\2520), concesionaria del servicio de hostelería del Hospital Donostia, cuando secundaban las huelgas convocadas el 30 de diciembre de 2009 y el 5 de enero de 2010.

El caso presenta una particularidad, y es que la sustitución de trabajadores no es tomada directamente por el empleador, sino por un tercero, en este caso Osakidetza, que se vale de sus propios trabajadores para hacer las tareas no asumidas por los huelguistas.

La Sala concluye que el derecho de huelga, como derecho fundamental, debe prevalecer sobre otros que no tienen tal carácter, como es, en este caso, el derecho de libertad de empresa.

En este sentido, Osakidetza decidió externalizar los servicios en el ejercicio de ese derecho, libertad de empresa, y la Sala del TSJ considera que esa decisión debe ser asumida con todas sus consecuencias, especialmente las laborales.

**Precedente con resultado bien distinto.** En otro conflicto en el que Osakidetza había subcontratado ciertos servicios de radiodiagnóstico a la empresa Osatek, el organismo público remitió servicios que tenía asignados la empresa en la que se desarrolló la huelga a otros centros que ofrecían el servicio.

El TSJ del País Vasco conoció del tema en primera instancia y entendió que la actuación de Osakidetza fue acorde a derecho (AS 2000\2989). ELA recurrió ante el Tribunal Supremo, y la sentencia de instancia fue confirmada (RJ 2001\5205), declarando que no se había producido vulneración del derecho de huelga.

El Tribunal Supremo realizó una interpretación del derecho de huelga bastante discutible, con pronunciamientos como el que sigue: “los sujetos directamente concernidos en el derecho de huelga son los trabajadores y la empresa a la que aquéllos se hallan vinculados por el contrato de trabajo, pero los clientes o público en general, que goza o se sirve de las prestaciones realizadas por la empresa, están completamente desvinculados del derecho de huelga, por ello tienen absoluta libertad para buscar los servicios o prestaciones que la empresa en huelga les suministraba en otras empresas, o por los medios que tengan por conveniente”.

Habrá que estar pendiente de próximos pronunciamientos del TSJ en contextos de huelga, subcontratación y sustitución de trabajadores por la empresa subcontratista para confirmar este cambio de criterio.

**Derecho fundamental.** Lo lógico es pensar que esta última tesis es la que debe prevalecer por ser la más respetuosa con el derecho fundamental de huelga. No parece sostenible defender, como hizo el Supremo, que una empresa subcontratista, como cualquier usuario afectado por una huelga, es libre de acudir a proveedores en el mercado. Supone una limitación injustificada del derecho de huelga, no entendida como el derecho a hacer daño a terceros sino como el derecho a defender esa vía de conflicto en su integridad, sin injerencias que pretendan limitar su repercusión.

El pronunciamiento del Tribunal Supremo ha sufrido críticas doctrinales que se resumen en frases como las siguientes: “La lógica del abuso de derecho ofrece una apariencia formal razonable que esconde una valoración judicial negativa del conflicto laboral sin base normativa expresa”, “Negar el derecho al daño empresarial de la huelga significa neutralizar el sentido jurídico del derecho fundamental reconocido en los arts. 28.1 y 2 CE” (Relaciones Laborales, 2002, tomo I).



ELA 100 URTEZ euskal sindikatua

KRONIKA
DE LA A A LA Z




# Lehen mendeurrena

› GORKA QUEVEDO

**1911ko ekainaren 11n langile talde batek ELAren estatutuak aurkeztu zituen.** Apurka-apurka Euskal Herri osotik zabalduko zen proiektu sindikal eta abertzale baten hastapenak ziren. Gaur, 100 urte igaro diren honetan, harro baina umiltasunez, esan dezakegu ELA Hego Euskal Herriko lehen sindikatua dela. 110.000 afiliatu eta %35a gainditzen duen ordezkaritza honen lekuko dira. Bide guzti honetan hamaika zailtasun eta oztopo egon dira, baina hamarnaka mila militanteren lanari esker aurrera ateratzea lortu dugu, unerik zailenetan ere. Horiei guztiei, zorionak.

**A › AAB:** Trapagarango ABBn eta Sestaoko Navalen berriki aurkeztutako Enplegu Erregulazio Espedienteak izan dira entzutetsuenak. Baina, zoritxarrez, ez dira bakarrak: Aldaiturriaga, Nervacero, Fersint, Choymo, Conforama, Ikea, Jokalde, Befesa edo beste hainbat enpresetan ere lanpostuak zintzilik daude. Ezkerraldean ematen ari den desindustrializazio prozesua salatzeko ELAk, gehiengo sindikalarekin batera, hainbat ekimen abiatu ditu. Horien artean, ekainaren 18an Sestao eta Barakaldo lotuko dituen martxa. Ezkerraldeak merezi du.

**B › Bartzelona:** Ekainaren 15ean istiluak izan ziren Kataluniako Parlamentuaren atarian, Bartzelonan, aurrekontuak onartzeko antolatutako saioaren aurretik. Istiluek alderdi guztien gaitzespena jaso zuten Katalunian, eta hortik kanpo ere kezkagarriak direla esan dute askok. Azkar asko 'suminduei' eta M-15 mugimenduko kideei leporatu zieten ardura. Hala ere, baliteke errealitatea oso bestelakoa izatea. Interneten bolo-bolo dabilen bideo batek manifestarien artean polizia sekretuak zeudela erakusten du, eta istiluak horiek eragin zituztela iradokitzen du. Ez litzateke lehen aldia izango. 2002. urteko martxoan frogatuta gelditu zen globalizazio neoliberalaren aurka Bartzelonan egindako goi-bileran izandako liskarrak mani-

**Que un sindicato de clase y abertzale como ELA haya cumplido 100 años solo se puede entender por el trabajo militante de miles de personas**

## La reforma de la negociación colectiva es un nuevo ataque contra la clase trabajadora

festazioan infriltatuta zeuden hogei poliziez osatutako talde batek hasi zituela.

**C › CEOE:** Espainiako CEOE patronalari gauza asko leporatu ahal zaizkio, baina ukaezina da bertute bat baduela: pentsatzen dutena esaten dute. Bestela, nekez ulertu liteke bere presidente Juan Rosellek berriki agerpen publiko batean esandakoa. "Gobernatzen utziko baligute, ziurrenik politikoki zuzenak ez diren gauzak egingo genituzke". To eta no.

**D › DSK:** Ameriketako Estatu Batuetako poliziak Nazioarteko Moneta Funtsako presidente Dominique Strauss-Khan atxilotu zuen New Yorken, ostatu hartzen zuen luxuzko-hoteleko langile etorkin bati sexu erasoa egitea leporatuta. DSK epaiaren zain dago. Gu ere bai.

**E › Epaiketa:** Islandiako Parlamentuak hala erabakita, ekainean Geir H. Haarde lehen ministro ohiaren aurkako epaiketa hasi zen. Hauxe da Haarderi leporatzen zaiona: arduragabekeriaz jokatzea herrialdeko bankuen 2008ko porrotean. Finantza-krisia hasi zenetik epaileen aurretik igaro beharko duen lehen goi agintaria da. Azkena ote?

**F › Franco:** Espainiako Historiaren Errege Akademiak bere obra berritu du. Hari erreparatuz, Francisco Franco ez zen diktadore bat izan, eta ezarri zuen erregimena ez zen totalitarioa izan –autoritario hitza erabiltzen dute orain–. Historia irabazleek idazten dutela esaten da.

**G › Gezurra:** Sarri askotan entzuten da agintariak jende-xumearen errealitatetik kanpo bizi direla. Azken hauteskundekanpainan Espainiako gobernuko presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterok esandakoak hori berresten du. "Gezurra da murrizketak egon direnik eta Ongizate Estatuak atzera egin duenik. Are eta gehiago, aurrera egin du".

**H › Hauteskundeak:** Maiatzaren 22an udal eta foru hauteskundeak egin ziren Hego Euskal Herrian. Landeiaren ale hau itxi zen unean udalak eratuta zeuden, baina Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak zein Nafarroako Gobernua osatu gabeak ziren. Ikusteke dago zein nolako neurriak hartuko diren langile-jendearen alde hastear den agintaldi honetan.

